

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko abuztuaren 19tik 23rako astea

---

## ➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

## ➤ **GURE IKUSPEGIA**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROGUNEA: KPI



### Datuaren analisisia


**Euroguneko urte arteko inflazio-tasa** % 1ekoa izan zen uztailean, atariko balioespena baino hamarren bat gutxiago eta aurreko hileko datua baino hiru gutxiago; Euroguneko inflazio-mailarik txikiena 2016ko azarotik. Uztaileko inflazio-presioek ahultzera egin zuten energiaren prezioen igoera apalagoaren ondorioz. Izan ere, partida hori urte arteko % 0,5 igo bazen ere, ekaineko % 1,7ko igoera baino txikiagoa da oraindik.

### Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROGUNEA: PMI KONPOSATUA



### Datuaren analisisia

**Euroguneko jarduera guztiaren PMIa 51,8koa izan da urteko zortzigarren hilean, eta nahiz eta gora egin duen uztailean lortutako hiru hiletako minimotik (51,5), azken sei urteetako irakurketarik ahulenetariko bat da. Zerbitzuen eta manufaktura-sektorearen datuak, bestalde, 53,2tik 53,3ra eta 46,5etik 47ra igo dira, hurrenez hurren. Herrialdeka, Alemaniako manufaktura jarduerak 43,2tik 43,6ra egin zuen gora, 2018aren hasieratik erreferentziak izan duen joera negatiboa mantentzea espero zenean. Frantziak ere portaera positiboa izan zuen, eta neutraitasun-maila berreskuratzea lortu zuen, 49,7tik 51,0ra pasa baitzen.**

### Adierazlearen azalpena

PMI Konposatuaren indizeak erosketen profesionalei eta fabrikazioaren eta zerbitzuen sektoreko enpresetako exekutiboek hileroko bidaltzen zaizkien galdetegiaren erantzunak ditu oinarri. Bi sektore horien aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: FABRIKAZIOAREN ETA ZERBITZUEN PMIak



#### Datuaren analisia

AEBetako fabriken jarduera atzeraldian sartu da lehen aldiz 2009ko irailetik, **manufaktura-sektoreko erosketen kudeatzaileen PMI** indizearen atariko datuak adierazten duenaren arabera: abuztuan 49,9 puntutan kokatu da, aurreko hileko 50,4 puntuen aurrean. **Estatu Batuetako zerbitzuen sektoreko adierazleak** ere pixka bat okerrera egin du abuztuan; uztailleko 53 puntuetatik 50,9ra jaitsi da, azken hiru hiletako irakurketarik kaskarra. Horiek horrela, AEBetako sektore pribatuaren jardueraren hazkundera 50,9 puntutara jaitsi da uztailleko 52,6tik, eta, beraz, hiru hiletako minimoetan kokatu da.


#### Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erosketen profesionaleri eta enpresetako exekutiboeri manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.



## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: KPI



### Datuaren analisisia

**Japoniako kontsumorako prezioen indizeak** behera egin zuen uztailean, % 0,7tik % 0,5era, espero zena (% 0,6) baino hamarren bat gutxiago. Azpiko erreferentziak, aldiz, hamarren bat igo zen, % 0,6raino (% 0,5eko datua espero zen).

### Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
08/26	Alemania	IFO enpresen egoera	95.3
08/26	Alemania	IFO aukerak	91.8
08/26	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	99.0
08/26	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	--
08/26	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 1.3
08/26	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	-1.0
08/27	Alemania	Hiruhileko BPGd SA	-% 0.1
08/27	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	102
08/27	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	2
08/27	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza	130.0
08/27	Alemania	SA YoY xehekako salmentak	--
08/28	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	9.5
08/29	Frantzia	Urte arteko BPGd	% 1.3
08/29	Espainia	Urte arteko KPIa	--
08/29	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	102.5
08/29	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	--
08/29	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1.5
08/29	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 2.0
08/29	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
08/29	Estatu Batuak	Egiteke dauden hileko etxebizitzaren salmentak	% 0.0
08/30	Japonia	Langabezia	% 2.3
08/30	Japonia	Urte arteko xehekako salmentak	-% 0.6
08/30	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	-% 0.5
08/30	Frantzia	Urte arteko KPIa	--
08/30	Espainia	Urte arteko xehekako salmentak	--
08/30	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 7.5
08/30	Estatu Batuak	Pertzepzioa Mich. U.	92.5
08/30	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
08/30	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSA:

Burtsako indizeen balantzea negatiboa izan zen astearen bukaeran AEBetan, mistoa Europan eta positiboa Asian. Gerra komertzialaren beldurrak, Italiako ziurgabetasun politikoak eta Brexitak eragina izan zuten indize nagusietan. Txinaren eta AEBen arteko tentsio komertziala baretu egin zen astearen hasieran, Huawei enpresari beste 90 egun eman zizkionean enpresa iparramerikarrei osagaiak erosteko. Baina, ostiralean, Txinak Estatu Batuetako ondasunei 75.000 milioi dolarreko muga-zerga berriak ezarriko dizkiela iragarri zuen ezustean, indarreko kargei % 10eko tasa gehigarri bat aplikatuz.

Neurri horri erantzuteko, Txinako ondasunei 550.000 milioi dolarreko muga-zerga gehigarri bat ezarriko diela iragarri zuen Trumpek, bai eta enpresa estatubatuarrei ekoizpena Txinatik ateratzeko aukerak bilatzeko gomendatu ere. Halaber, adierazpen horiek berpiztu egin zuten bi potentzien arteko gerra komertziala. Igandean, baina, tentsioak baretze aldera, Estatu Batuetako presidenteak baztertu egin zuen enpresa estatubatuarrei Txinatik irteteko gomendioa. Italiara begira jarrita, Giuseppe Conte presidente italiarrak bere dimisioa aurkeztu zuen, Movimento 5 Stelle eta Lega Nord alderdien arteko krisiaren harira. Bere dimisioak herrialdeko egoera politikoa lausotu du, gobernu berri bat eratu beharko delako hauteskondeak ekiditeko. Brexitari dagokionez, Europar Batasunak atzera bota zuen Boris Johnson lehen ministroaren negoziazioak irekitzeko eskaera, Irlandako mugaren inguruan alternatiba errealistik proposatu ez duela argudiatuz. Jackson Hole bailaran egindako banku zentraletako arduradunen bileran, Powellek ez zuen tasen jaitziera berrien inguruan argi hitz egin, baina diru-politika moldakor bati ateak ireki zizkion, Erreserba Federalak hazkundeari eusteko neurri egokiak hartuko dituela baieztatu zuenean. Asteburuko G7 bilkuran, AEBek eta Japoniak hasierako akordio komertzial batera heldu zirela adierazi zuten, datorren hilean sinatzea espero dutena.

## ERRENTA FINKOIA:

Alemaniko gobernuaren kurbak gorazko tentsionamendua izan zuen. Mugimendu hori, hein batean, PMLen irakurketa batzuen ondorioz gertatu zen, espero baino hobeak izan zirelako, nahiz eta oraindik Alemaniako manufaktura-sektorearen ahultasuna erakutsi. Bada, hamar urterako erreferentzia alemaniarra 1 op igo zen, -% 0,68raino. Espainiako 10 urterako bonua, aldiz, 6 op igo zen, % 0,14raino, eta arrisku-prima 81 puntuetaraino handitu zen. AEBetan, hamar urterako tasak 2 op egin zituen atzera, % 1,54raino, tentsio komertzialaren handitzearen eta Powellen hitzen aurrean.

Kredituaren diferentzialak, aldiz, estutu egin ziren.

## DIBISAK / LEHENGAIK:

AEBen eta Txinaren arteko tentsio komertzialak larriagotu egin ziren, eta dollarrak % 0,49ko balioa galdu zuen euroaren aurrean. Lehengaiak begira, petrolioaren prezioa % 0,66 jaitzi zen, gerra komertzialaren gaitzotzeak munduko ekonomiarenganako konfiantza zapuztu zuelako. Urrearen balioa, bestetik, % 0,89 igo zen, 1526,90 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa	Ald. % Astean 2019
MSCI WORLD (Local)	1.607,73	-0,76	11,54
IBEX 35	8.649,50	-0,24	1,28
DJ EURO STOXX 50	3.334,25	0,16	11,09
DJ STOXX 50	3.069,05	0,19	11,20
FTSE	7.094,98	-0,31	5,45
S&P 500	2.847,11	-1,44	13,57
Dow Jones	25.628,90	-0,99	9,87
NASDAQ	7.751,77	-1,83	16,83
NIKKEI 225	20.710,91	1,43	3,48
MSCI GORAKORRAK (Lo)	54.918,27	0,50	2,80
MEXBOL	39.862,07	1,33	-4,27
BOVESPA	97.667,50	-2,14	11,13
SHANGHAI	3.035,38	2,61	16,24
Errucio Dte Moskua	1.262,15	2,21	12,02

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,89	0,02	-0,28
ESPAINIA 2 URTE	-0,55	0,00	-0,31
AEB 2 URTE	1,53	0,06	-0,95
ALEMANIA 10 URTE	-0,68	0,01	-0,92
ESPAINIA 10 URTE	0,14	0,06	-1,28
AEB 10 URTE	1,54	-0,02	-1,15
ALEMANIA 30 URTE	-0,13	0,09	-1,00
ESPAINIA 30 URTE	1,05	0,12	-1,56
AEB 30 URTE	2,03	-0,01	-0,99
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 06/24*	51,77	-1,41	-36,60
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/24	271,42	-9,21	-82,27

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Dolarra / Euroa	1,11	0,49	-2,83
Yena / Euroa	117,49	-0,40	-6,52
Libera / Euroa	0,91	-0,68	0,94

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Petrolio (Brendt)	58,31	-0,66	9,67
Urrea	1.526,90	0,89	19,06

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.